

Diploma banaketa Norbere Garapen eta Taldeen Lidergoko 1. Masterrari

2007/02/19

Mondragon Unibertsitateko Giza eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak diplomak eman zizkien 2005/2006 promozioiko **Norbere Garapen eta Taldeen Lidergoan I.** Aritu Ikastaroko 18 ikasleri.

Otsailaren 9an, eman zitzaizkien diplomak, 12:00etan, **HUHEZIKO** areto nagusian, Eskoriatzan. Ekitaldi akademikoaren buru **Iosu Zabala** izan zen, MUko errektorea, **Nekane Arratibel** dekanoarekin eta **Marian Iriondo** masterreko zuzendariarekin batera.



Norbere garapena eta taldeen lidergoa

Guztira, hemezortzi lagunek hartu zuten parte iaz **Norbere Garapen eta Taldeen Lidergoko I. Masterrean**, denak enpresetako eta sailetako zuzendariak. Ikastaroaren helburua zen ikuspegi estrategikoa ematea pertsonen kudeaketari eta enpresa-jarduerari buruz.

Hiru modulu independenteren bidez, parte-hartzaileek banakako "entrenatzaile" (coach) baten laguntza jaso zuten ikastaro osoan. Entrenatzaileak ikasle bakoitzarekin egin zuen lan, banan-banan, banakako praktika, irakurketa eta ariketetan, eta lan horri esker egin da ikasleen prestakuntza-ebaluazioa.

Ikastaroa amaitzeko, parte-hartzaileek amaierako proiektua egin zuten, norbere garapenari eta taldeen lidergoari buruzkoa.